



2024ko maiatzak 3la

EGILEak: Inuntze Olano, Ane Merino, Izaro Pontesta eta Hodel Lantz

TALDEKO PARTAIDE BATEKIN ELKARRIZKETA

AUZOTAR GAZTEEK ZUMEA

ZVM€A TALDEA

Zumea taldea iraila-urria inguruan sortu zen, Andoaingo gazte talde baten eskutik. Talde honetan parte hartzen duten partaideak garrantzitsuenak. Oier Irazu, Gartzot, Iker Artola eta Iurgi Benitez dira, horrez gain, beste hainbat pertsona daude atzean beraien laguntzen. Abesti ofizial bakarra atera dute D3 delurikoa. Kantu hau sortu zenetik, utarrilak 20tik, bisita asko hartu ditu, SoundCloud-en.

Zumea fenomeno duela gutoi gauzatzen hasi den mugimendu sozial bat bezala har daiteke, hainbat letra josi dituzte trap erimotan kantaturik eta horrek oihartzun zabala sortzen ari da Andoainen eta Andoaindik kanpo. Ekimen honen hasiera oso informala izan zen. Sorabilako frontoian lagun artean zeudela hitzak askatzen zituzten bilartean konturatu ziren gustuko zutela eta proiektu modura aurrera jarraitzea erabaki zuten. Denbora pasa ahala egitura formalagoa egiten hasi ziren eta hor izan zen lehenengo abesti ofiziala atera zuteneari. Kantuetan, hasiera batean ez zuten ezer transmititu nahi eta horrela jarraitzen dute, baina nahigabe batzuetan gendeari zerbait transmititzea lortzen dute, abesti batzuetan alaitasuna ikusi dezakegu eta beste batzuetan, aldi, gizartearekiko kritika.

TRAP GENEROA

Trap generoa Estatu Batuakoko hegoaldean hasi zen 1990-ko hamarkadaren bukaeran, Shaquay Red produktorearen eskuz, musika genero honetako rap generoa eta hip-hop generoa nahaste ditu. Trap musikak sintetizadoreak, erritmo-kutzak, azpi-baxuak... Erabiltzen ditu, eta ahotsarentzako auto-tune asko erabiltzen da, honetako guztiak estetika ilun eta triste bat ematen dio musika genero honi.

2012. urtean Europara iritsi zen genero hau, eta Penintsulara urte bat beranduago 2013. urteko udaran, PXXR GVNG taldearen eskutik, talde honen kideak Yung Beef, Kaydy Cain, Khaled eta Steve Lean izan ziren, talde gaur egun ez dago aktibo. Latinoamerikara berriz 2014. urtean iritsi zen PXXR GVNG taldean inspiratuz, Puerto Ricoan hasi zen Randy eta Arcangel abeslariekin. 2019 euskal trapa sortu zuten Chill Mafia taldeak, talde hau izan zen euskal trapa egiten lehen taldea, euskal musika klasikoaren beraien abestietan txertatuz. Trap generoak arrakasta handia du gazten artean gaur egun eta festa giroan asko entzun ohi da izan ere, Hemen txertatuta ZVM€A taldearen trap base bat.



Zer sentitu zenuten lehenengo kontzertua egin zenutenean? Eta noiz izan zen?

Azaroak 3an izan zen gure lehenengo kontzertua Jarfalter baino lehenago. Lokura izan zen.

Uste duzu kontzertu gehiago egingo ahal dituzuela?

Bai, guk uste deu baietz, ofiziala bat egin degu baina beste batzutan gazte txera joan eta guk nahiguelako jotzen dugu. Aurrerago ateratzetugun 6-7 kanta bai pentsatzen deuz kontzertu gehiago egitea.



Zeinek disenaitu zuen kamiseta? Eta zergatik jarri ziozuen eroskiko logoa?

Gartzotek diseinatu zituen kamisetak, egun baten esan genun "goazen kamisetak egitera" eta gendeak esaten zigun egiten bagenituen erosiko zizkigutela, ta hasi ginan egiten. Eta Eroskiko logoa, zumeako zerbaitekin jolasteagatik jarri genuen.

Zer adinetarako dagoela gidatuta zuen abestiak uste duzue?

Hori ia pertsona da, igual pertsona batek 14 urte ditu baino asko bizitu du eta beste batek 18 eta ez du ezer bizi, hori ez da adinagatik.

Zeintzuk zarete? Eta zein helbururekin hasi zarete taldearekin?

Oier Irazu, Gartzot, Iker Artola eta Iurgi Benitez (dj-a), pertsona gehiago ere daude atzean guri laguntzeko eta ez zaigu inportatza gure lagun batek gurekin kantatu nahi badu.

Trap konposizio horiek egiten zer transmititu nahi dezute? Eta zer nolako letrak egiten dituzte?

Ez dugu ezer transmititu nahi, hau egiten dugu modu batera gure arazoak eta bizipenak espresatzeko, baina batzuetan nahigabe gauzak transmititzen ditugu.

"GURE ARAZOAK ETA BIZIPENAK ESPRESATZEKO"

Zer da abestian hainbat aldiz aipatzen duzun Zumea? Eta zer da zuzentzat Zumea?

Ea, Zumea guretzat bokitilik bertan egon gara horrela esateagatik hor jaiotza eta hazi gara eta hor elkartzen ginen, azkenean, guretzat plaza hortan ezagutu gara eta gure bizitzako parte da.

"GURETZAT SENTIMENDU BAT DA."

Zeintzuk dira zuen erreferenteak/a?

Ez ditugu erreferenteak, azkenen guri gustatzen zaiguna da musika mota desberdin asko eta beraietatik ideak hartzen ditugu, baina erreferente bezala ez dugu inor hartzen.

Taldeari etorkizuna ikusten ahal diozute? Eta etorkizunarekiko zerbait pentsatuta ahal duzue?

Bai, bai ikusten diogu etorkizuna egia esan, bastante lasai goaz, baina kamisetak atera ditugu gende dextentek erosten dizkigu. Eta bai, bai daukagu pentsatuta, beste pertsona batekin ari gara hitz egiten, beste diseinatzaile batekin ta beste diseinu bat ateratzea daukagu pentsatuta, eta gero ere bai mixtape bat ateratzea beste 6 abestirekin.

Zergatik ez zenuten euskaraz egin abestia?

Ba, ez genun euskaraz egin ez zitzaigulako ateratzen, guk ez daukagu arazorik euskaraz hitz egiteko baino guri hobeto ateratzen zaigu gaztekeraz.